

GAU BELTZA

Katu beltz, bat korrika
Matia kaletik
belea hegan dabil
itsaso aldetik.
Zer gertatzen ote da
Antigua aldean
kaleak beltz bihurtzen
dira bat-batean.

PIZTU DENOK KANDELAK BADATOR GAU BELTZA ILUNTASUNEZ JANTZI ZAIGU GAUR JAKINTZA

Ehundaka mamu datoz
Aizkorritik behera
Amets gaizto handienak
gugan berpiztera.
Gaztainak erre ditu
beldurraren suak
kalabazek auzoan
zabaldu izua

PIZTU DENOK KANDELAK BADATOR GAU BELTZA ILUNTASUNEZ JANTZI ZAIGU GAUR JAKINTZA

Presta gaitezen denok
badator Herio
Saguzarrak hegalarak
astindu dizkio.
Dantza dezagun dantza
ilargi azpian
hildakoek ereindako
beldurren argian.

PIZTU DENOK KANDELAK BADATOR GAU BELTZA ILUNTASUNEZ JANTZI ZAIGU GAUR JAKINTZA